

1936-1945 arteko memoria historikoa ikertuko dute



Aurkezpenean izan ziren Mikel Pagola alkatea, David Rosco (EAJ), Mikel Izagirre (EH Bildu) eta Consuelo Frutos (PSE-EE) udal ordezkariak, Marijo Henriques Udal artxibaria eta Eneko Sanz eta Javi Bucos Aranzadiko historialariak.

Urnietan 1936-1945eko epealdian zer gertatu zen ikertzeko eta zabaltzeko hitzarmena sinatu dute Urnietako Udalak eta Aranzadi elkarteak.

Mikel Pagola alkatearen hitzetan, "Udalak bere erantzukizuna dauka memoria historikoari lotutako bizikidetzaren alorrean, eta argi dauka merezi duela ahalegin berezi bat egiteak, Urnietako guztion arbasoen memoria bizirik mantentzeko. Ahal ditugun urratsak emateko prest gaude, eta atzera begiratu, gure arbasoekin daukagun zorra ahal den neurrian kitzatzeko".

Lan fase ezberdinetan gartuko da Aranzadi elkartearekin sinatu den hitzarmena. Hasiere batean, artxiboetako datuak eta testigantza pertsonalak biltzea izango da helburu nagusia; horretarako, memoriaren bulegoa irekiko da eta gaia herrian zabaltzeko asmoz bi hitzaldi antolatu dira, urriaren eta azaroaren zehar.

LIBURUAREN ARGITALPENA

Javi Bucos Aranzadiko historialariak zehaztu zuen zertan oinarrituko den aurrera eramango duten ikerketa. "1936tik 1945era gertatu zena ikertuko dugu, batez ere protagonistak izan zirenen historia jaso nahi dugu hurrengo hilabetetan. Bulegoaren bitartez, herritarrek informazioa eskatu eta eman ahal izango dute. Berebizikoa izango da herritarren laguntza. Zergatik? Dena ez dagoelako artxiboetan. Gainera, gure lana zientifikoa izan arren ez dugu tesi doktora egin nahi, baizik eta Urnietaren oroimen historikoa berreskuratu liburu dibulгатibo baten bitartez, eta horretarako, ikusten dugu nahitaezkoa dela herritarren partaidetza egitasmo honetan".

UDAL ARTXIBOA

Urnietako artxiboak bereziko garrantzia edukiko du egitasmo honetan, eta bertako arduradun den Marijo Henriques azaldu zuen zertan izango den lagungarri. "Artxiboan dokumentazio dexente daukagu zorionez, eta aurten dagoeneko

egin dugun bilketa lanean 400 espediente baino gehiago topatu ditugu aro historiko horrekin loturik. Hala ere, ez da ahaztu behar erregimen frankistak sortutako dokumentazioa dela hori dena. Esate batera, gerra-frontean hildako herritarrei buruzko informazioa badago, baina dena bando frankistari dagokiona da. Gauzak horrela, garrantzia handia dauka bulego bat irekitzeak, artxiboko fondoan ez dagoen errepresioari buruzko dokumentazioa edo ahozko testigantzak jaso ahal izango direlako".

OROIMENAREN BULEGOA UDAL ARTXIBATEGIAN

Urnietarrek informazioa eskatu ahal izango dute 1936-1945 epean errepresaliak jasan zituzten senideei edo pertsonei buruz; halaber, informazioa eman ere ahal izango dute herritarrek. Azaroaren 3ra bitarteko egongo da irekita, honako ordutegiarekin: goizeko 10:00etatik 14:00ak arte eta arratsaldeko 16:00etatik 19:00ak arte. Harremanetan jartzeko:

- 943466142
- esanz@aranzadi.eus.

Mikel Pagolak mezu jakin bat helarazi nahi izan zien Urnietako herritarrei: "Hitz egiteko borondatea erakusten duten herritarrei gonbitea egiten diegu Aranzadiko historialariek bulegoan bildu daitezen".

BI HITZALDI LEKAION URRIAREN 20AN ETA 27AN

Bulegoa irekitzearekin batera, bi hitzaldi antolatu dira, Lekaioko kultur etxean. Eneko Sanz historialariak adierazi zuenez, "1936ko Gerra Zibila aipatu, eta fronteak, bonbardaketak... etortzen zaizkigu burura. Baina horiek baino gehiago, txanpon beraren bitartez aurpegi latz diren zenbait ondorio aztertuko dira. Hain zuzen, Urnietako herritarrei zer gertatu zitzaizen landuko dute bi hitzaldiek".

- **Urriak 20, ostirala**
"Erbesteak".
Oscar Alvarez.
Lekaioko. 19:00.
- **Urriak 27, ostirala**
"Errepresioa".
Eneko Sanz.
Lekaioko. 19:00.


Herri galdeketa, azaroaren 5ean Andoainen



Apirilean aurkeztu zen herri ekimenak azaroaren 5a du jomuga. Antolaketa taldea burubelarri dabil egunaren antolaketan.

[ANDOAIN, 5. ORR.]

Giro bikainean igaro dira Xoxokako jaiak



Sega desafioa, herritarren arteko herri-kirol saioa edota sagardo dastaketa arrakasta handiko ekitaldi bilakatu ziren.

[URNIETA, 2-3. ORR.]

Atzegi boluntario bila



[ANDOAIN, 6. ORR.]

XOXOKAKO JAIK

Giro paregabean igaro dira jaiak Goiburu aldean

Aizkolariak, idi-asto proba, sega apustua, herri jokoak, hamaiketa-ko, bazkari eta afariak, bertso saioak, herri antzerkia, euskal dantzak... Harrigarria da bertako auzotarrek zer nolako egitarau oparo

eta erakargarria antolatzen duten. Eurentzat zein kanpotarrentzat, eta zeinen sutsuki bizitzen dituzten.

Argazkiak, bideoak: www.aiurri.eus



Otegi eta Gabirondo garaile izan ziren Xoxokan.



Julen Gabirondok eta **Jon Otegi**k osatutako bikotea irten zen garaile Xoxokako sega apustuan; 35 segundoko aldea atera zioten **Suharri Irazustabarrenari** eta **Iñigo Merkaderreri**. Ikusgarria eta emozioz beterikoa gertatu zen indar neurketa, baina azkenean Euskal Herriko txapeldun den Gabirondoren eskarmentuak norgehiagoka desorekatu egin zuen. Herri-kirol zale ugari bildu zen Xoxokako lur sailera, eta gustura jarraitu zituen lau segalarien ahalegina. Ondoren gaztetxoek heldu zioten segari eta erakustaldi polita egin zuten, agerian utziz segaren modalitateak baduela etorkizuna. Tartean izan zen Urnietako **Oier Goenaga**; lanean ederki moldatzen dela ikusi ahal izan zuten zaleek Xoxokako zelaian.



BERTSOLARIEN SAIO LABURRA

Goizeko 11:00tan hasita Xoxokako eskolan auzoko adinduek egin zuten hamaiketakoan kantatzetik zetozen **Haritz Mujika** eta **Mikel Artola**, eta pare bat bertso botatzeko beta hartu zuten sega apustua bukatu bezain pronto.

Mikel Artola:

Sega kontuan ingurukoek badute hainbat teori. Haseran fuerte jotzen badute amaierarako erori. Izerdi patsez goiza pasata bada hainbat kategori. Zorionak bi irabazleei eta eskerrak lauori.

Haritz Mujika:

Gaurko honetan nahiz eta etzen txapelketa eta txapela, lau gazte hauek emana dute behar adinako nibela. Bi nagusi eta beste bik galdu lehia denetan bezala. Lan mundiala egin dezute eta bejondeizuela.

Mikel Artola:

Goizean goiztar sega hartuta Xoxoka aldean gogor, saiatu gabe ez da geratu lantegi honetan inor. Orain gazteak hastera doaz denak ahal bezain jator. Ikusten dezagun zer gertatzen den etorkizuna hor dator.

Haritz Mujika:

Nahiz ta gaur egun gutxik horretan pasatzen duen eguna. Ta ematen dunez datorren hura izan nahikoa iluna. Jarraian ere omen da hemen gazte batzuen jarduna. Xoxoka aldean herri kirolek badute etorkizuna.



Sanmielelako eta Xoxokako jaien jarraipena aiurri.eus gunean









ARGAZKIAK
BIDEOAK
EGUNEZ EGUN



XOXOKAKO JAIAK



Beltzez eta horiz jantzitako bi taldeek makina bat jokoan bidez neurtu behar izan zituzten indarrak.



Sokatiran adin haur eta gazteak gogor jardun zuten.



Agian jokorik zailena izan ohi da bi lagunen artean sagarra kopetarekin eutsita plazari buelta ematea.



Taldeko gaztetxoek animatu ziren baldeka-ur batetik sagarra ateratzera.



Irudimena izaten da nagusi jokoetan, esaterako, kubiarta gainean bat jarri eta laguna tiraka jardutea.



Hiru jokalariek batera egin behar dute lan tabla-jokoan, eta finago aritu ziren beltzen taldekoak.



Sukaldean beti bezain zintzo aritu zen kuadrila, ogitartekoak prestatzen.



Herri jokoan ostean sagardoen probaketari heldu zioten Xoxokan.

URRIAK 14, LARUNBATA

Pausoka jaialdia Urnietan, larunbat honetan

Behar bereziak dituzten haurren Pausoka elkarteak urteko festa ospatuko du Egape ikastolako jolastoki estalian, larunbat honetan. Aldarrikapenerako eta ezagutarazteko hitzordua izanagatik ere,

antolatzaileek egun osoko ospakizuna izatea nahi dute. Eta horretarako Golazen telebista saioko aktoreak edota Porrotx pailazoa eguneko gonbidatu bereziak izango dira.

Pausoka ekimen handiko elkartea da, Gipuzkoako eta Gipuzkoatik kanpoko ehunka haurrei terapia ematea lortu duena. Hazkunde prozesuan murgilduta daude, Hernanin eta Urnietan kokaturik. Larunbateko festa handia izango da, eta hori bidelagun ezberdinei esker egin ahal izango da. Besteak beste, Udalak eta eragile ezberdinak bidelagun dituzte. Jaiauren aurkezpen ekitaldian honako adierazpenak egin zituzten:

MARIA LESACA, PAUSOKA:

“TERAPIA GEHIAGO ESKAINTZEKO PAUSOKA EGUNA BEHARREZKOA DA”

“Behar bereziak dituzten haurren familietara iritsi nahi dugu, eta elkartea ezagutarazteko Pausoka eguna antolatzea beharrezkoa da. Gure helburua gune bateratua lortzea da, terapia gehiago eskaintzeko. Esker ona adierazi nahi diegu Hernaniko eta Urnietako Udalei”.

JOXE MARI AGIRRETXE, PORROTX:

“PAUSOKAKO HAURRAK ETA FAMILIAK EZAGUTZEKO AUKERA ONA IZANGO DA”

“Terapiatan aurreratu da, baina oraindik ere asko dago egiteko eta lortzeko. Pausoka horretan ari da lanean, eta eguneroko lana bezain garrantzitsua da ospakizuna antolatzea. Urriaren 14an Pausokako haurrak eta familiak ezagutuko ditugu, begietara begiratu eta euren errealitatea hobeto ezagutuko dugu. Jaia aldarrikapenerako izango da, baina terapiatarako dirua lortzeko ere”.

LUIS INTXAUSPE, HERNANIKO ALKATEA:

“PAUSOKAREN INGURUAN KOMUNITATEA LANEAN ARITZEA GARRANTZITSUA DA”

“Pausoka eguna lehen aldiz Hernanin egin zen. Orduan komunitate txikia zen eta geroztik handituz doa. Pausoka egunean beste eragile batzuren inplikazioa ikusiko dugu. Batuz doan komunitate hori ikustea garrantzitsua dela deritzot”.

MIKEL PAGOLA, URNIETAKO ALKATEA:

“BABESA EMAN BEHAR DIEGU”

“Pausokak zerbitzua eskaintzen die hainbat haurrei, eta babesa eman behar diegu. Pausoka eguna bezalakoak antolatu beharra daude, elkartea bera ezagutarazteko, herritarren kontzientzia eragiteko eta finantziak lortzeko. Larunbatean kanpoko biztanleak Urnietara etortzera gonbidatuta daude”.



Pausoka egunaren bigarren edizioa 2015eko urriaren 11n egin zuten, Urnietan. Dozenaka puxika askatuz amaitu zuten eguna, Egape ikastolaren kanpoaldean.

Pausoka eguna 2017 URNIETA LARUNBATA

Berrasoetako aparkalekua (kiroldegi ondoan)

(Eguraldi txararekin, Egape ikastolan)

10:00 Pausoka egunaren ekimena Kepa Gondom ezkerrean eta beste hainbat lekutan. Hainbat ekimena izango dira: Auzerakua, Jone Ugarrearekin eta Egape Dantza Taldearekin.

11:00 Tallerra: kirol egokirik, jai pegen marailetan, eskulana, Dña. graffitiak, ezkerreko tenislaria...

12:00 Tallerra: iberra eta pailaza.

13:00 Bilkuztunak:

- “El coro de los colores”
- Dñe Nestor Ezkerre Dantza Taldearekin
- Golazari

14:00 Porrotxen emanaldia.

Pausoka egunaren antolatzaileak: HERRITARRAKI GONBIDATUTA DA.

KORRIKALARIAK



ANDOAIN ETA URNIETA ZEHARKATUZ AMAITUKO DUTE ITZULIA

Larunbat honetan Pausoka egunarekin batera, amaiera emango diote Gipuzkoako itzulari. Zortzi egunez herrialde osoan ibili da korrikalari taldea, Pausokaren egunaren berri ematen eta baita Pausokaren eta antzeko elkarten berri ematen ere. Bidean korrikalariak eta beste zenbait elkarteetako kideak batu zaizkie.

Urriaren 7an hasitako lasterketa larunbatean amaituko dute. Villabonatik 09:30ean irtengo dira, 11:00k aldera iristeko.



HERRI GALDEKETA DATORREN AZAROAREN BOSTEAN

Herri galdeketaren prozesua azaroaren 5ean gauzatuko da

Andoainen herri galdeketa martxan jartzeko prozesua azken txanpan sartu da. Ekimena udaberrian abiatu zen Goikoplazan, dozenaka herrikideren parte hartzearekin. Geroztik, urrats ezberdinak

eman dituzte. Azaroaren 5ean amaituko da kontsulta ahalbidetzeko prozesua, andoaindarrei "Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritar izan?" galdera egingo zaienean.



2017ko apirila
Andoain Esan ekimenaren aurkezpena

Apirilaren 22an aurkezpen ekitaldia egin zuten Goikoplazan.



2017ko ekaina
Andoaingo 1500 sinaduren bermea

Hiru hilabetez, Sanjuanak bitarte, herri kontsulta egin ahal izateko 1500 sinadurak lortu zituzten.



2017ko iraila
Galdera adosteko batzarra

Irailaren 23an goiz osoko bilkura egin zuten Basteron, eta bertan egin beharreko galdera zehaztu zuten.

Aurtengo martxoan eta maiatzean Astigarraga, Hernani, Usurbil, Lasarte-Oria eta Aiztondoko herrietan erabakitze eskubideari loturiko herri kontsultak egin zituzten. Urtea amaitu aurretik, azaroaren 5ean, Andoainen galdeketa egingo dute Gipuzkoako Beizama eta Bizkaiko beste hainbat herrietan bezala. 2014ko ekaineko giza-kate erraldoitik hona An-

doainen ekimen ezberdinak egin dituzten arren, herri kontsulta antolatzeko lanik handiena azken bost hilabeteotan metatu da. **Andoain Esan** ekimenak hartu du gidaritza lana, eta hari segika hainbat boluntario lanean dabilta. Azaroaren 5erako kide gehiago behar dituzte herri kontsulta berme guztiekin egin nahi bada.



2017ko urria
Galdeketa gauzatzeko kanpainaren hasiera

Urriaren 1ean herri galdeketaren kanpainari hasiera eman zioten, galdera bera jendaurrean aurkeztuz.

HIRU BOZKALEKU

Urriaren 1ean kanpainari hasiera eman zioten, eta bertan iragarri zuten, azaroaren 5ean Andoainen bozkatzeko hiru gune egongo dira: Zumea plazan, Juanita Alkain plazan eta Goikoplazan. Aldez aurretik ere botoa emateko aukera izango da, antolatzaileek datozen egunetan iragarriko duten egutegian.

ANDOAINEN ERROLDATUTA

Bozka ematerakoan, ezinbestekoa da da botu emaileak Andoainen erroldatuta dagoen agiri ofiziala aurkeztea. Nor-tasun agirian edota gida-baimenean horrela agertu behar luke. Aipatu agiri horietan Andoainen erroldatuta dagoela ziurtatu ezin duenak udaletxean bertan errolda-agiria eskatu behar luke.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ibilbide gidatua Andoainen



San Martin elizaren aztarnategitik abiatu zen ibilaldia.

Andoaingo Udalak eta Larremendi Bazkunak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, herrietako ondarea ezagutarazteko ibilaldia antolatu zuten.

Bigarren urtez jarraian, herriaren historian sakondu zuten. Ibilaldian zehar, parte hartzaileek herriko ondareari buruzko argibideak jaso zituzten.



Kale Nagusian, Santa Krutz elizan..., geldialdi ezberdinak egin zituzten.



Santa Krutz elizan hamaketakoarekin amaiera eman zioten irteerari.

Adimen urriko pertsonen aldeko elkartearen kanpaina

Atzegi: "Boluntario gehiago behar ditugu"



Eskualde mailako kanpainaren aurkezpen ekitaldia Lasarte-Orian egin zuten, joan zen asteartean.

Atzegi Adimen urriko pertsonen aldeko Gipuzkoako elkartearen aurtengo kanpaina boluntarioei zuzenduta dago. **Atzegi Xperience** lema bitartez, boluntarioek bizipen ahaztezinak izaten dituztela eman nahi dute aditzera. Bide batez, arlo horretan aritzen diren lagunen ahalegina goraiatu nahi dute. "Musutruk, hainbat esparrutan laguntzen duten pertsona asko dago", Buruntzaldeko ordezkariak aditzera eman dutenez.

"ESPERIENTZIA PAREGABEA"

Boladan daude bidaia-kutxak. Opari gisa, arrakasta handia dute. Atzegi Xperience lema, hortaz, opari-kutxa horiekin aldera daiteke. Adimen urritasuna duten lagunekin aritzen di-

ren boluntarioentzat, esperientzia ahaztezina dela adierazi nahi dute horrela.

Zeregin horretan, laguntzeko modu asko dago. "Puntualki kolaboratuz, aldizka, zaletasunen bat partekatuz, ekimenean parte hartuz, oportetara joanez... Kolore guztietako esperientziak daude eta, zarena zarela, badago zuretzat egokia izan daitekeen esperientzia", Atzegiko kideek prentsaurreko bidez adierazi zuten.

GIZARTERATZEAN LAGUNDU

Atzegik, batetik, boluntario berriak batu nahi ditu. Eta bestetik, jada horretan ari direnei eskerrak eman nahi dizkie: "Adimen urritasuna duten pertsonen bizitzan boluntarioek du-

ten garrantzia azpimarratu nahi dugu. Hauei esker, adimen desgaitasuna duten pertsonen beren aisialdiaz gehiago gozatu, gizartean aktiboki parte hartu edo lagun hurkoari zabalteko aukera dute. Horrek guztiak hobetzen du, azken batean, euren gizarteratzea".

BOLUNTARIO EGITEKO ZER EGIN?

'Atzegi Xperience' goiburuen bitartez, lau eskaintza ezberdin proposatu dituzte: Bizipoza, Irteerak, Ongizatea eta Bidelagun. Boluntario gisa aritzeko, Atzegik eskaintzen dituen aukera ezberdinak dira horiek.

Boluntario moduan aritu nahi duena, Atzegirekin jar daiteke harremanetan: 943 42 39 42.

MODAN DA EUSKARA ZIKLOA ANDOAINEN



Mikel Urdangarinen emanaldiarekin eta Gau Zuriarekin, ekitaldiz beteriko asteari amaiera eman zioten Andoainen. Aste osoan zehar, Udalak antolatuta, hitzaldiak edota tailerrak izan di-

ra. Larunbat arratsaldean ere, Modeus pintxoak dastatu ahal izan zen hainbat tabernatan. Tabernen arteko lehiaketan Olloki eta Hiru jatetxea saritu zituzten.





KIROL ALBISTEAK

Urnietako Kirol Elkarteak antolatutako antzerki ikuskizuna

'Jokoz kanpo' antzezlan hezitzailea Saroben

"Gaur egun indarkeriak kirolean presente egoten jarraitzen du. *Jokoz kanpo* antzezlan futbol zelaietan ematen den indarkeriari buruzko parodia da". Errealitate gordin horren aurrean, Urnietako udalak eta UKEk guraso eta entrenatzaileei zuzenduriko antzezlan antolatu dute Urnietan.

Datorren urriaren 18an izango da Saroben, iluntzeko 20:00etan hasita. Gaztelaraz izango da eta sarrerak Sarobeko leihatilan jaso daitezke.

SINOPSISIA

"Borobil Teatrok eszenatokia joko zelai bihurtzen du futbolaren munduan gertatzen diren jarra irrazional eta onartezinak azaleratzeko. Kirolaren alderdi negatiboena *jokoz kanpo* uzteko. Manuk eta Martinek futbol talde banaren ardura dute. Mutitil kozkorrak entrenatzen dituzte, kirol miresgarri honek dituen balore guztiak eransteko asmotan. Manuk eta Martinek aspalditik ezagutzen dute elkar. Manuk eta Martinek finala dute be-



Asier Hormaza, Asier Sota eta Joseba Apaolaza aktoreak.

gien bistan. Eta finala irabazi egin nahi dute. Garaipena dute nor direla frogatzeko modu bakarra, bizitzan ez daudela jokoz kanpo erakusteko aukera bakarra".

URRIAK 18, ASTEAZKENA

Ordua: 20:00.
Tokia: Sarobe.
Iraupena: 75 minutu.
Aktoreak: Joseba Apaolaza, Asier Hormaza eta Asier Sota.

Euskal Pirinioetako behatoki ederrenetakora, urriaren 21ean

Zanpatuz taldearen irteera

Hilaren 21ean goizeko zazpiretan irtengo da autobusa Matxo tabernatik, eta Baxe Nafarroako Donaixti-Ibarreraino joango dira. Ibilaldia zailtasun ertainekoa da, 6-7 ordukoa, eta gaintitu

beharreko desnibel positiboa 1.000 metrotik gorakoa da. **Koldo Tapia** izango da **Etsekortia**ko irteerako arduraduna. Norberak bere bazkaria eraman beharko du, eta antolakuntzak neguko

arropa eramatea gomendatzen du. Izena emateko epea urriaren 17an amaituko da. Bazkideek 10 euro ordaindu beharko dute; gainerakoek 15 euro (Ikasmin, Xauxar, Kantoi).

Senior mailako eskubaloi ligako lehen jardunaldia

Eskubaloiko liga hasiera

URNIETA BALERDI HARATEGIA 24 EIBAR 24

Lehiaketako lehenengo partida, Haritza aurkari onaren aurka. UKE aurretik joan zen partida osoan zehar, 4 goleko diferen-

tzia lortu zuelarik. Hala ere, akats batzuk tarteko, partida berdinketan amaitu zen. Defentsa zurruna egin zuen Urnietak, baina erasoan Haritzaren 5-1 defentsarekin talka egin zuten.

Sergio atezainaren erakustaldia eta Egoitzen erasoko jokoa nabarmendu behar dira. UKEk puntu on bat lortu du, nahiz eta garaipena euren zen sentsazioarekin etxera itzuli.

Lehendakari aldaketa Euskalduna mendi taldean

Datorren azaroaren 15ean ez ohiko batzarra deituko du Euskalduna mendigoizale taldeak, lehendakari berria izendatzeko. Dagoeneko kargua berritzeko prozesua martxan dagoela iragarri dute. Hauexek dira lehendakartzitza berritzeko pausoak:

- Azaroaren 2ra arte: Hautagaien aurkezpena.
- Azaroak 3-7: Alegazioen aurkezpena.
- Azaroak 8-10: Hautagaien jakinarazpena.
- Azaroak 15: Lehendakari berria izendatzeko ez ohiko batzarra.

Urnietako-Euskalduna preferente mailako derbia

Bosgarren jardunaldia:

Urnietako-Euskalduna
Larunbata, 14. 17:15.

Laugarren jardunaldia:

Billabona 2-1 Urnietako
Euskalduna 1-0 Oiarzun

Sailkapena:

1. EAS08 12 puntu
4. Euskalduna 8 puntu
6. Urnietako 6 puntu

Jubenil mailako partidak

Urnietan

Urnietako A-Ostadar

Larunbata, 14. 15:30.

Urnietako B-Euskalduna A

Larunbata, 14. 19:00.

Sailkapena, 3. multzoa:

1. Euskalduna A.

Sailkapena, 5. multzoa:

1. Urnietako A.

Leizaran eskubaloi taldeko emaitzak

Senior Mutilak:

Leizaran Ermio 26-28 Egia

Jubenil mutilak

Ereintza 5-22 Leizaran

Jubenil neskek

Urnietako 25-12 Leizaran

Kadete mutilak

Hondarribia 30-36 Leizaran Imatel

Leizaran Horia 17-29 Usurbil KE

Kadete Neskek

Leizaran Urdiña 17-18 Avia Eibar

Leizaran Horia 17-7 Bera Bera

Infantil Mutilak

Ereintza 17-18 Leizaran Urdiña

Infantil Neskek

Bera Bera 20-24 Leizaran Urdiña

Ganbara saski taldeko emaitzak eta ordutegiak

AURREKO JARDUNALDIA:

Añorga 39- 51 Ganbara Seniorrak

Ganbara Kadeteak 56-9 Deba

BKL 66-35 Ganbara infantilak

ASTEBURUKO PARTIDAK:

Ganbara Seniorrak

Larunbata, 14. 19:15. Andoain.

Sailkapena: Ganbara 6. postuan.

Hasiera bikaina trinketean Urnietako KE taldearentzat

Haite-Betachet

16

Julen Loitegi-Eñaut Esnaola

40

Iparaldeko txapelketa. Arrotz zitzairen pilotalekuen maila bikaina eskaini zuten.

Maiz-Landa

28

Julen Loitegi-Gurutzealde

40

Elite Euskadi. Julen bikain aritu zen aurkari gogorren aurka.



Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Mariano Larremendi
Baltzu Mugatua

INIS TORRE

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Ensko Jauriaritza

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOINGO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urrietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus. Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu. publicitate@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 6.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnieta).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

URRIAREN 11TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

Andoain, Bastero

- **Golazen**, telesailaren estreinaldiko zinema saioa. Asteazkena, 11. 18:30. Osteguna, 12. 17:00.
- **El amante doble**
Larunbata, 14. 19:30, 22:00. Igandea, 15. 19:30. Astelehena, 16. 22:00.
- **La flauta magica**
Opera zinema aretoan. Asteazkena, 18. 20:30.
- **Handia**
Urriak 21, 22 eta 23.

Urnieta

- **Ballerina**, haurrentzat. Igandea, 15. 17:00. 4 euro.
- **Mendi Tour**
3 film laburren proiektzioa: 'Annapurna III - Unclimbed', 'Boys in the bugs', 'Freedom under load'. Ostirala, 20. 19:00.
- **Vaiana**, haurrentzat. Igandea, 22. 17:00. 4 euro.

Jaialdia

Urnieta

- **Pausoka** elkarrekin antolatutako jaia, Egape ikastolako jolastokian. Egun osoko ospakizuna. Egitaraua: **11:00** Jaiaren hasiera. **11:30** Tailerrak. **14:00** Bazkaria. **16:30** Ikuskizunak. **18:30** Porrotx. Urriak 14, larunbata.

Antzerkia

Urnieta, Sarobe

- **Jokoz kanpo:** Joseba Apaolaza, Asier Hormaza eta Asier Sota. 20:00 Dohainik. Urriak 18, asteazkena.

Andoain, Bastero

- **La velocidad del otoño:** Lola Herrera, Juanjo Artero. Obra garratza, dibertigarria eta hunkigarria. 21:30 Gaztelaniaz. Urriak 13, ostirala.

Poesia

Andoain, Bastero

- **Leize gorriko poetak:** Rolando Verde, Lander Laborde, Julio Biurrun. 19:30 Dohainik. Urriak 17, asteartea.

Barrikotea

Andoain

- Andoaindarra elkarrekin, bazkide diren eta ez direnentzat. Menua: txorizoa sagardo erara, askotariko frijituak, bakailoa piperrakin, txahal-saihetsa txingarretan, gazta, irasagarria, intxaurrak, kafea eta sagardobarrikotea. 20 euro. Izen-ematea, azken eguna: Urriak 21, larunbata. 14:00 Barrikotea. Urriak 28, larunbata.

Musika

Andoain, Bastero

- **Kalakan & Duo L'Incontro:** Txalapartarekin batera, harpa eta oboea. 21:30 12 euro. Urriak 20, ostirala.

Jaialdia

Andoain, Bastero

- **Folklore jaialdia** Zumea plazan, egun osoan zehar. Urriak 21, larunbata.

Erakusketa

Andoain, Bastero

- **"Palimpsesto"**, hainbat artisten eskutik. Azken eguna: Azaroak 11.

Farmaziak

Andoain


- **Gorospe:** Rikardo Arregi, 12. Urriak 12.
- **Pajares Merino:** Zumea kalea, 20. Gaez: Etxebeste (Hernani). Urriak 14 eta 15.

Urnieta

- **Aizpuru Odriozola** (Hernani): Latxunbe Berri, 11. Urriak 12.
- **Tena** (Astigarraga): Kale Nagusia, 16. Gaez: Etxebeste (Hernani). Urriak 14 eta 15.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Urriaren 17an zure lehenengo urtea beteko duzu pottolo! Ederki ospatu dugu. Zorionak **Irei!!!** Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Aritzek 6 urte bete zituen urriaren 10ean "Txori eijera, hain alegera, entzuten haidan..." Aita eta ama.

URNIETA


ZORIONAK



Urriaren 13an **Ainhoak** 24 urte beteko ditu. Eskerrik asko zaren bezalakoazarelako. Mila zorion!

ANDOAIN


ZORIONAK



Urko, urriaren 11n 16 urte. Ondo-ondo pasako duzula koan gaude. Badakizu asko maite zaitugula. Ama eta aita.

URNIETA

ZORIONAK



Zorionak **Garazi!** Urriaren 18an 7 urte. Ondo pasa! Ama, Alberto, Izaro, Irati eta Oier.

ANDOAIN


ZORIONAK



Beñat urriaren 22an jada 15 urte beteko dituzu! Beti aurrera... Muxu handia etxekoen partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Urriaren 28an **Ane** Muñozek 3 urte beteko ditu. Zorionak eta segi orain arte bezain zoriontsu!

ANDOAIN

ZORIONAK



Ibaik 10 urte beteko ditu urriaren 14an, eta 12an bere izeba **Olaik**. Muxuak. Etxekoak.

URNIETA

Herrien eguna Zumea plazan, urriaren 21ean



Urriak 21, larunbata
Zumea plaza

Antolatzaileak: Andoaingo Hogar Extremeño elkartea eta Cacereseke Diputazioa.

Laguntzailea: Andoaingo Udala.

Egitaraua:

- 11:30-12:00** Kaletxiki txaranga.
- 12:15** Kalejira Basterotik Zumea plazara.
- 12:40** Aureskua.
- 12:50** Olagain Elkarteko txistulariak.
- 13:10** Urki dantza taldea.

13:30 Alberto Agirre abesbatza.

13:50 Kaletxiki txaranga.

17.00-18:00 Zumba maratonia.

18:15 Donostiako Extremadura zentroko abesbatza eta dantza taldea.

19:00 Zuen emakumeen elkarteko dantza taldea.

19:30 Lasarteko Semblante Andaluz elkarteko Zambra dantza taldea. Egunean zehar tokian tokiko produktuak dastatzeko aukera egongo da.

Bus zerbitzuen murrizketa salatu dute

Irailaren 7an **Gipuzkoako Foru Aldundiak** herrialdeko garraio publikoaren zerbitzuetan hainbat egokitzapen iragarri zituen. Egokitzapenak eta murrizketak ere bai, **Andoain**, **Hernani** eta **Usurbilgo** Udalek salatu dutenez. Murrizketok bertan behera utzi eta gaiari konponbide adostu bat ematea eskatu zuten Aldundiaren aurrean joan zen urriaren 4an eginiko agerral-

dian. "Errespetu instituzional falta" egotzi zion **Ana Carrere** Andoaingo alkateak Aldundiari. Aurreproiektu honen baitan, hainbat zerbitzuren maiztasuna murriztu eta zenbait zerbitzu bertan behera uzteko asmoa du Aldundiak.

OSPITALERAKO ZERBITZU BATZUK, BERTAN BEHERA

Besteak beste, "ospitalerako

autobus zerbitzu batzuk bertan behera geratzen dira eta horrek bete-betean eragiten die gizarteko sektore ahulenei", zioen Xabier Arregi Usurbilgo alkateak. Sentsibiltate handiko gaia, erabiltzaile gehienak gazteak eta emakumeak direla kontuan izanda.

Andoaingo Udalak erreklamatzeko aukera eskainiko die herritarrei, datozen egunetan.